**6/2017 EBAZPENA, 2017KO URTARRILAREN 2KOA, OSAKIDETZAKO ZUZENDARI NAGUSIARENA; HORREN BIDEZ, BIZKAIKO ODOL EMAILEEN ELKARTEARI 2017KO EKITALDIKO DIRU-KOPURUA EMATEA ONARTZEN DA**

**RESOLUCIÓN Nº 6/2017, DE 2 DE ENERO DE 2017, DE LA DIRECTORA GENERAL DE OSAKIDETZA, POR LA QUE SE APRUEBA LA ASIGNACIÓN A LA ASOCIACIÓN DE DONANTES DE SANGRE DE BIZKAIA PARA EL EJERCICIO 2017**

**Oinarria:** Bizkaiko Odol Emaileen Elkartearen ardura izan da Bizkaiko Lurralde Historikoan odola eman dadin sustatzea. Elkarteari laguntza teknikoa ematen dio Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak; izan ere, lankidetza estua dauka zentro horrekin.

**Resultando** que la Asociación de Donantes de Bizkaia viene siendo la encargada de realizar la promoción de la donación de sangre en dicho territorio, junto con el apoyo técnico del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos; con quien mantiene una estrecha relación de colaboración.

**Oinarria:** Laguntzaile altruisten konpromiso kolektiboaren bidez gauzatzen dira elkarteko jarduerak, eta Osasun Administrazioak urtero ematen dio diru-kopuru bat, izaera nominalekoa, gastu arruntak ordaindu ahal izateko.

**Resultando** que para poder efectuar la actividad que viene desempeñando, a través del compromiso del colectivo de colaboradores altruistas, ésta Asociación percibe de la Administración sanitaria una asignación anual de carácter nominativo destinada a sufragar su gasto corriente.

**Oinarria:** Otsailaren 13ko 29/2001 Dekretuak Transfusioetarako eta Giza Ehunen Horniketarako Euskal Autonomia Erkidegoko Sarea antolatzen du. Dekretu horretan ezarrita dago Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroaren zereginak direla odola eman dadin sustatzea eta odol-emaileen elkarteekin lankidetzan aritzea.

**Considerando** que mediante Decreto 29/2001 de 13 de febrero, por el que se establece la organización de la red transfusional y de suministro de tejidos del País Vasco establece como funciones del Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos la promoción de la donación de sangre y colaboración con las Asociaciones de donantes.

**Gertaera:** Indarrean dagoen aurrekontuan jaso behar da Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteari zuzendutako diru-kopuru nominala. Zenbatekoa: 688.652 €.

**Considerando** que el presupuesto actual recoge la necesidad de disponer de una asignación nominativa a la Asociación de Donantes de Sangre de Bizkaia por un importe de: 688.652 €.

EBATZI DUT:

RESUELVO:

**Lehena:** Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteari diru-kopurua ematea. Elkarteak odola eman dadin sustatzen du, eta Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak agindutako gidalerroak betetzen ditu; hortaz, hori egiteko izaten dituen finantza-beharrei erantzutea da diru-kopuruaren xedea.

Bizkaiko Odol Emaileen Elkartea: 688.652 €.

**Bigarrena.** Ordainketak urtarriletik azarora egingo dira hilero; eta 57.387 €-koak izango dira. Abenduko zenbatekoa 57.395 €-koa izango da.

Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa arduratuko da diru-kopurua kontrolatzeaz eta kudeatzeaz.

**Hirugarrena.** Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteak 2018ko martxoaren 31 baino lehen justifikatu behar du emandako diru-kopurua. Horretarako, hauexek aurkeztu beharko ditu: diru-sarreren eta gastuen egoera, 2017ko jarduerei buruzko memoria-txostena eta funtsak zertarako erabili diren justifikatzeko balio duen beste edozein agiri.

**Laugarrena.** Diru-kopuru horrekin batera ezin da jaso Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiak xede bera betetzeko eman dezakeen beste ezein.

**Bosgarrena.** Diru-kopurua zertarako eskatu eta eman den, horretarako erabili behar du Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteak. Elkarteak betebehar hori edo ezarritako betebeharren bat betetzen ez badu, nahitaez itzuli beharko du emandako eta jasotako zenbatekoa, lege-interesekin batera.

**Primero.** Conceder la asignación a la Asociación de Donantes de Sangre de Bizkaia al objeto de cubrir sus necesidades financieras para hacer frente a la promoción de donación sanguínea y demás directrices encomendadas por el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

Asociación de Donantes de Sangre de Bizkaia: 688.652 €.

**Segundo.** El libramiento de los pagos se llevará a cabo mensualmente por un importe de 57.387 € de enero a noviembre. El importe de diciembre será de 57.395 €

El órgano encargado del control y gestión de la asignación será el Centro Vasco de Transfusión y Tejidos Humanos.

**Tercero.** La justificación de la asignación concedida se efectuará antes del 31 de marzo del 2.018, presentando la Asociación Estado de Ingresos y gastos, memoria de actividades del ejercicio 2017 así como cualquier otra documentación que se considere oportuna para aclarar el destino de los fondos.

**Cuarto.** La presente asignación será incompatible con cualquier otra que pueda conceder la Administración General de la Comunidad autónoma del País Vasco para idéntico destino.

**Quinto.** En caso de que la Asociación de Donantes de Sangre de Bizkaia no utilice la asignación para el destino específico para el cual se solicitó y concedió, o en general incumpla las obligaciones establecidas, vendrá obligada a reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales.

Osakidetza

**Seigarrena.** Ebazpen hau jakinarazi behar zaio Bizkaiko Odol Emaileen Elkarteari.

**Sexto.** Notificar la presente resolución a la Asociación de Donantes de Sangre de Bizkaia.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urtarrilaren 2an.

En Vitoria-Gasteiz, a 2 de enero del 2017.

Osakidetza
ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTORA GENERAL

Iz./Fdo: Mª Jesús Gemma Múgica Anduaga
Zuzendari nagusia/Directora General

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD